

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Zergadunen matrikula, Ekonomia-Jardueren gaineko Zergari (EJZ) dagokionez. 2026ko ekitaldia. (Espedientea: 2026/2026/167)

Arabako Foru Aldundiak zergadunen matrikula egin du Kuartangoko udal-mugarteko Jar-duera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokionez, 2026ko ekitaldirako.

2026ko uztailaren 22ko 2026-56 Ebazpenaren bidez, alkate-udalburuak jendaurrean jartzea onartu du, hamabost (15) egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Interesa dutenek udaleko bulegoetan aztertu ahal izango dute erreferentziako zerga-espedientea, 9:00etatik 14:00etara. Egokitzen jotzen dituzten azalpenak, alegazioak eta/edo erreklamazioak ere egin ahal izango dituzte.

Kotizaziopeko erroldak jendaurrean jartzeak errolda osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa dakar, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera. Zergadunek berraztertze errekurtsoak jarri ahal izango dituzte alkate-udalburuaren ebazpen horren aurka, hilabeteko (1) epean, iragarki hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Azalpenak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsoak alkate-udalburuari jarriko zaizkio, lehen adierazitako epeetan.

Borondatezko aldian biltzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2026ko irailaren 1etik 2026ko urriaren 31ra, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak 2026ko urriaren 2an kobratuko dira.

Zerga hau helbideratuta ez duten zergadunek honela ordaindu ahal izango dute:

- Kutxabankeko sukurtsaletan, banketxe horiek irekita eta ordainagiria aurkeztuta.
- A través de “Mi Pago”, en la pasarela de pagos de la página web del ayuntamiento.

Borondatezko epean dirua biltzeko epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotek premiamendu-prozedurari eragingo diote automatikoki, eta lege ezarritako errekarquak eta, hala badagokio, berandutze-interesak eta sortutako kostuak sortuko dituzte.

Zuhatzu Kuartangon, 2026ko uztailaren 22an

Alkate-udalburua
MIREN MEABE CARRO